ASTEKARIA | 2014ko urtarrilaren 10ean | XVII. urtea | USURBIL | 557. zenbakia | www.noaua.com
TOKIKOM

# noaua




**'Tantaz tanta' Bilboko manifestaziora joateko autobusak antolatu dira**

**Logotipo lehiaketa Soinurbil jaialdiarentzat**

**Eguberriak, iruditan**

## Jon Uribe gogoan

# Bere irribarreak iraungo du betiko


marijearropadenda
%30
Beherapenak
Marije
Arropa denda
Etxebeste 3, Usurbil


FUNERARIA
GONZALEZ
EHORZTETXEA
munalurra 8, USURBIL
·EDOZEIN ASEGURU IZANDA
(OCASO, SANTALUCIA...)
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).
ASEGURUAREKIN IZAPIDE GUZTIETAZ
ARDURATZEN GARA ZUZENEAN,
(MOMENTU LATZ HAUETAN ASEGURUAREN POLIZA ZENBAKIA
EDO ERREZIBOA EDO HORRELAKORIK EZ DUGU BEHAR,
ASEGURUAREKIN ZUZENEAN IZAPIDEAK EGITEN DITUGU)
943 36 21 63 (24H)
·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK
·Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo
beilatokia DOAN (gure eskutik)
info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es


Pauma
BEHERAPENAK


MAUXAREN
DENDA
(M.Luisa Sambade)
BEHERAPENAK!
943 100 275 Pablo mutiozabal 1, LASARTE

## Albistea iruditan

# 2014ari harrera... Andatzan

Urte berriari ongi etorria, parrandan eman diote batzuk. Urte zahar gauean ireki zituzten tabernen bueltan jende mordoxka bildu zen, baita Askatasuna plazan Iñaki Larrañaga "Larrak" eskaini zuen dj saioan ere. Eguna argitu arteko parranda giroa egon zen Usurbilen. Urte berri egunez, beste herritar batzuk hartu zieten lekukoa. Usurbildar talde batek mendian eman baitio ongi etorria 2014ari. Indartzen ari den ohitura dugu, urte berri egunez mendira igotzea. Usurbildar talde bat, Andatzan izan zen urtarrilaren 1ean. Babes lekuan atera zuten argazkia duzue ondokoa.

2014ko lehen mendi irteera izan dute. Baina ez azkena. Andatzakoak aurtengo txangoen egutegia lantzen hasiak dira jada.



**Urte berri egunean, Andatzako babeslekuan.**

## Laburrean

### Mikel Laboa plazako lanen bigarren fasea

Oraingoan, Mikel Laboa plazatik Etxebeste kale alderako sarbide ingurua oinezkoentzako egokitzeko lanak burutuko dira. Construcciones Altuna y Uria, S.A. enpresa arduratuko da lanez.

### San Silvestren egindako zozketak

Hauek dira zenbaki sarituak:
Airis Onepad 735 Tableta: 93.300.
Grundig Led 40VLE630BH Telebista: 66.202.
Coluer Rave 270 markako bizikleta: 69.187.

### "Nik ere erraustegia gelditu dut" eguneko zozketak

1. saria: Patri jatetxean bi lagunentzako otordua, 7.828.
2. saria: otarra, 1.089.
3. saria: berrerabilpen kit-a, 1.172.

noaua
Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Ana Aizpurua.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Bea Alda, publizitatea@noaua.com.
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Aizpea Aizpurua.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege–Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.
**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala
AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Euskal presoak
Euskal Herrira!
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Luis Aranalde**

# Zapata zaharrak eta gastatuak

Bederatzi hilabete pasatxoak, besterik ez. Denbora hori bakarrik igaro da Frantzisko Aita santua hautatua izan zenez geroztik. Gezurra dirudi zenbat gauza aldatu diren hain epe motzean. Hilabete batzuk baino ez ditu behar izan Elizaren aurpegia garbitzeko, prestigioa emateko agonian zegoen erakunde horri eta milioika kristauen fedea berpizteko. Baita miresmena eta begirunea irabazteko ere ateo eta agnostiko askorengandik. Ez da sinestekoa ze ilusioa piztu duen. Zerbaitegatik aukeratu dute aldizkari ospetsuenetariko batzuek 2013an munduak eman duen pertsonaia eraginkorrena bezala.

Berri pozgarri honen arrazoi batzuk:

**1-Elizaren barne demokraziaren bila ibiltzea.** Aitasantutzaren kontzeptua bera aldatu nahi du Frantziskok, hau da, monarka absolutu gisa jokatu ordez, mundu osoko gotzainekin kontatu nahi du erabaki handienak hartzeko garaian. Lehen pausua izan da, hain zuzen ere, G-8 deituriko komisio bat aukeratzea batzorde horrek bost kontinenteetako gotzainak ordezkatuko ditu eta Erromako kuria erreformatzen lagunduko diote Aita Santuari. Duela gutxi hitz egin zuen aitasantutzaren konbertsioaz eta deszentralizazioaz. Elkarrizketa gustatzen zaio, baina ez ideiak aztertzeko bakarrik, elkarrekin lan egiteko baizik.

**2-Vatikanoaren finantzaketetan garbitasuna jartzea.** Hasieratik bere ahalegin handienetarikoa izan da mundu ilun hori argitzea eta txukuntzea. Konkretuki IOR erakundea edo Vatikanoko Bankua aztertu du serioski, izan ere aspaldidanik susmoa zegoen erakunde horren zenbait operazioren helburua ez ote zen diru beltzaren zuriketa; ustelkeriaz jositako erakundea izan da zenbait alditan. Instituzio zorrotz bati agindu dio Vatikanoko kontuen auditoria sakon batzuk egin ditzan.

**3- Apaltasuna eta austeritatea:** "habemus papam" gauean bertan muzetarik (roketearen gainean zenbait kardinalek eramaten duen jantzi granatea) gabe agertu zen, zilarrezko gurutze soil bat bularrean eta zapata zahar eta gastatuak oinetan. Uko egin dio pontifizeari dagokion jauregiari eta erresidentzi apal batean bizi da. Alde batera utzi du kristalak blindatutako papamobila eta jeep ireki eta xume batean ibiltzen da hara eta hona. Lehengo astean 77 urte bete zituen eta lau eskale eta beren txakurra gonbidatu zituen bere urtemuga ospatzera.

**4-Alaitasuna dario:** ikusi egin bere da bere irribarre sano eta garbia; optimista da, baikorra. Eta jarrera hori bera eskatzen die kristauei eta bereziki apaizei. Ez du ikusi nahi ozpin aurpegirik; lehengo batean esaten zuen zenbait kristauk garizuma muturra dutela eta ez pazko aurpegia. "Ez izan emakumezko eta gizonezko tristeak;kristau batek ez du horrelakoa izan behar". Entziklika gisako dokumentu bat atera berri du: "Evangelii gaudium", hau da, ebanjelioaren poza. Esanguratsua izenburu hori ere.

Erronka latzak gelditzen zaizkio datozen urte hauetarako: **emakumearekiko** jarreraz ez du gauza handirik esan baina bai estilo berezi bat agertu musukatu egiten ditu naturaltasun osoz. Hori ez genuen inoiz ikusi Aita Santu batekin. **Dibortziatu** eta berriro ezkonduak hor daude horiekiko pastorala aldatu behar dela esan du. **Homosexualak** ere era berri batean tratatzen ditu:"zein naiz ni horiek epaitzeko?" esan zuen duela gutxi. Keinu horiek guztiak adierazten dute aro berri batean sartu dela eliza, Aita Santua kalera jaitsi dela eta kolektibo askoren asmoak entzuten hasi dela Aita Saindu honek aitasantutzari giza aurpegia jarri dio.

Bederatzi hilabete hauetan inork espero ez zuen iraultza hasi du.Egia da kontserbadore talde asko dagoela zain ea noiz hanka sartzeren bat edo beste egiten dituen daraman martxa bikain hau oztopatzeko. Kazetari bati irakurri nion: "ez al ziotek tisana bereziren bat emango,lehenbailehen Jaunarengan lo har dezan, horretan trebeak dituk eta Vatikanoan". Frantziskoren keinu berri hauek aldaketa handiak auguratzen dituzte. Espiritu berri bat eman dio elizari, hain zuzen ere kristautasunaren hasierakoa, lehen kristau elkartekoa.

Aritz Gorriti | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | **Luis Aranalde** | Maialen Unanue | Nerea Zinkunegi | Imanol Ubeda | Joxe Piñas

# Esker mila Usurbil

Egun gutxitan pozaren pozez egotetik, Ramon etxean zegoela eta, tristura gogorrenera pasatu gara. Bai batean eta bestean ordea, herriaren berotasuna sentitu dugu.

Zorte handia dugu Usurbilgo herritarrez inguratuta egotean, ze jende jatorra zareten! Zuei esker une latz hauek samurragoak izaten ari dira. Mila esker zuen besarkadengatik, loreengatik, hitzengatik, poemengatik, argazkiengatik, bertsoengatik, kantengatik, muxuengatik, gure ondoan egoteagatik eta egon ezin izan duzuenongatik... Benetan harro gaudela herri honetaz!

Ezin izango ditugu maitasun keinu hauek inoiz ahaztu, bihotz bihotzez muxu bana zuei!

*Urtarrilaren bian hain justu*
*ez da gertatzen urtero...*
*Gure artean ibili dena*
*irrifartsu, parrandero.*
*Agurtzen jakin duzue denok*
*malkoz, goxo, jator, bero...*
*Eskerrik asko Usurbil maite*
*ta poza zuengan bego.*
*Jon zoriontsu litzakelako*
*gurekin baldin balego!*

Doinua: Benito Lertxundiren "Itsasoari begira".

Oharra: urtarrilaren 4ko bertso musikatuen saioan, Jontxuren omenez abestua.

**Aupa Jontxu!**
**Jontxuren familia**

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: urtarrilak 17. Idatzia ekartzeko azken eguna: urtarrilak 13.

# Udal aurrekontuak, alegazio epean



Gobernu taldeak otsailean onartu nahi ditu behin betiko 2014ko udal aurrekontuak.

Abendua amaieraz geroztik, erreklamazioak aurkezteko hamabost lan eguneko epea dago. 2014rako udal aurrekontuak, abenduaren 17an burutu zen ezohiko osoko bilkuran onartu ziren. Gehiengo osoz, EH Bilduko udal ordezkarien aldeko bozkekin. EAJ-PNVko ordezkaria abstenitu zen. PSE-EE eta Hamaikabat udal taldeek aurka bozkatu zuten. Udalbatzak azken ezohiko osoko bilkuran hartutako erabakia, abenduaren 24an eman zuen argitara Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak.

Hasieraz onartu diren aurrekontuok, Usurbilgo Udaleko Kontuhartzailetza sailean ikus daitezke. Gogoan izan, guztira, 10.360.522 euro ditu Udalak, estreinatu dugun urte berriko egitasmoetara bideratzeko.

**Plantilla organikoa**

Udal aurrekontuekin batera udalbatzak jorratu ohi duen beste puntu bat ere bozkatu zuten azken ezohiko osoko bilkuran. 2014ko Plantilla Organikoa. Hasieraz onartu zuten baita, gehiengo osoz. Alde, EH Bildu eta PSE-EE. Aurka, Hamaikabat. Abstentzioa, EAJ-PNV. Erabaki hau ere, abenduaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten.

Alegazioak aurkezteko hamabost eguneko epea zabaldu zen gero. Tarte honetan erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, 2014rako Udalaren Plantilla Organikoa behin betiko onartutzat joko da.

**Ordenantza fiskal berriak indarrean**

Alegazioak aurkezteko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zenez, behin betiko onartuta geratu dira 2014ko Ordenantza Fiskalak. Indarrean dira jada. Gai honi buruzko zehaztasun gehiagoren berri, abenduaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jaso ahalko duzue.

Udalbatzak iragan urriaren 3an onartu zituen gehiengo osoz eta hasieraz, urte berri honetarako ordenantza fiskalak.

## 2017ra arte luzatuko da Euskararen Erabilerari buruzko plan berria

Hiru lan ildo nagusi biltzen ditu, Usurbilgo Udalaren V. Plangintzaldirako Euskararen Erabilera Normalizatzeko plan berriak:

1-Herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu hizkuntza izan dadin bermatzea; betiere, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.

2-Euskara beste administrazioekiko harremanetako hizkuntza izan dadin bermatzea.

3-Euskara administrazio barneko lan hizkuntza izan dadin bermatzea.

Euskararen erabilera plan berria, eguberri aurretik ospatu zen ezohiko osoko bilkuran aho batez onartu zuen udalbatzak. 2017ra arteko planaren helburu nagusia honakoa da: "udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea bai zerbitzu hizkuntza modura, bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntz eskubideei erantzun ahal izateko".

Udalbatzak eguberri aurretik aho batez hartutako erabaki honen berri emango zaio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari. Baita Usurbilgo Udala kide duen Udalerri Euskaldunen Mankomunitateari (UEMA), udaleko sail guztiei eta udal sindikatuei ere.

## Igeldo, Usurbilen mugakide berria

Orain arte, Orio, Aia, Zizurkil, Lasarte-Oria eta Donostia zituen mugakide Usurbilek. Abenduaren 18az geroztik, baita Gipuzkoako 89. udalerria ere; Igeldo. Herri galdeketa bidez igeldotarren gehiengoak herri izan nahi zuela adierazi ostean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Donostiatik bereizi eta udalerri izendatzea erabaki zuen, eguberri aurretik. Donostiako Udaleko oposizioak bultzatuta, auzibidera eramango dute Aldundiak hartutako erabakia.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 USURBIL

JON ELORZA
IGELTSERITZA OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

# Sakabanaketarekin amaitzeko, Bilbora larunbatean

Urtarrilaren 11 honetan, Bilbora euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko elkartasun olatu erraldoia altxatzera joateko deitu dituzte herritarrak. Usurbildik Bizkaiko hiriburura joateko autobus zerbitzua antolatu da; goizeko 10:00etarako, eta arratsaldeko 15:00etarako. Bilborako joan etorria autobusez egin nahi duenak beraz, mugi dadila, izen emate orriak ohiko tabernetan jarri dituzte.



Bilbora joateko bi aukera daude. Goizez, 10:00etan edo arratsaldez, 15:00etan irtenda.

**Tantaz tanta, itsasoa osatu arte**

Aurtengo mobilizazioak ez du manifestazio itxurarik izango. Bai ordea aldarri bat: "Giza eskubideak, irtenbidea, bakea. Euskal presoak Euskal Herrira". Herritar bakoitza presoen eskubideen aldeko tanta bihurtuko da urtarrilaren 11 honetan. Eta Bilbon espero diren milaka tantekin elkartasun olatu erraldoia osatu nahi da. Horretarako, adi Tantaz Tanta bilgunetik egin duten deialdiari. Larunbat arratsaldeko 17:30etan, bi olatu handi osatzera deitzen dituzte herritarrak. Olatuetako bat Casillatik abiatuko da, bigarrena Bilboko udaletxe paretik. Ordubetera, itsasoa osatuko dute Bizkaiko hiriburuan.

> *"Manifestazioaren aurretik eta ondoren, egun osorako ekimen desberdinak antolatu dituzte Bilbon"*

**Egun osoko jarduna**

Hitzorduon aurretik eta ondoren, egun osorako ekimen desberdinak antolatu dituzte Bilbon. 11:00etatik aurrera, eta gauerdira arte; Tximeleta, Gose, Xutik eta Kaotikoren kontzertuak, musikari ezberdinen kolaborazioak, enkantea, presoek sorturiko artelanen erakusketa, haurrentzako jolas, tailer eta pailazoak, jan edana... Hori eta gehiago aurkitu ahal izango dira, Areatzan kokatuko dituzten lau guneetan. Informazio gehiago: tantaztanta.info

## Kantu zaleen bilguneak bost urte bete ditu

Ospakizun eta ekimen bereziekin gogoratuko du Kantu Taldeak, bost urte bete dituela jada. Hasteko, ikastaro berria abiatuko da, hurrengo asteartean, urtarrilaren 14an. Dakizuenez, entsegu saioetarako astean behin, asteartero biltzen da Kantu Taldea. 18:30-19:30 artean Udarregi Ikastolan. Edozein herritar gerturatu liteke urte osoan zehar, Susi Elosegi musika irakasleak gidatuta burutzen diren hitzorduotara. Bilgunean parte hartzeko asmoa duenak, izena entsegu saioetan bertan eman dezake. Ikastaro osoaren prezioa: 10 euro.

**Kantua eta dantza**

2009an osatu zen kantu taldeak urte berrirako lehen kantu-jirarako hitzordua finkatua du. Urtarrilaren 25ean, iluntzeko 19:00etan, Mikel Laboa plazatik abiatuko da. Aurreko edizioei jarraiki, "aurten dantza taldea ere lagun izango dugu, kantua eta dantza txandaka plazaratuz".

Betiko nortasunari eutsiko diote halere, euren esanetan, Kantu Taldearen "helburuen artean, herrian, euskal kantuenganako giroa sortzea da Kantu jiren bidez, herriko ekimenetan parte hartuz: jaiak, kantu afariak, tradiziozko ekimenak... Horrez gain, kantuz aritzeko gizakiok dugun gozamenezko bertute hau berpiztea, euskal kantuen transmisioa bideratuz".



## Jendea batu zen abenduaren 30eko ekimenean

Jendea batu zen abenduaren 30ean, 'Egia bide, askatasuna amets' ekimenean. Usurbilgo frontoian, irudi, doinu eta dantza saioek girotu zuten ekitaldia. 1936tik hona "herri honen askatasunaren alde borrokatu zutenak" ekarri zituzten gogora.



**Abenduaren 30ean egin zen ekitaldia.**

## Mirotzen omenez

Mirotz Ullateren omeneko eskubaloi txapelketa amaieran, parte hartzaileekin ateratako irudia da. Infantilen arteko neurketak jokatu ziren igandean egun osoz Kiroldegian. Nesketan txapeldun amaitu zuten usurbildarrek. Mutiletan etxekoak bigarren izan ziren.



**Txapelketa amaieran, talde guztiekin egindako argazkia.**

## Aitor Aranguren, txapeldun berria



Gipuzkoako infantil mailako txapeldun berria da Aitor Aranguren aginagarra. Amezketako Zubeldia pilotariari irabazi zion finalean, 8-4 eta 8-1 emaitzarekin. Zorionak!

# Erraustegia geldituta, Gipuzkoa zero zabor lurraldea bihurtzea helburu



Errausketaren aroa itxi dela ospatzeko, zero zabor taldeak jai giroan batu ziren frontoian, abenduko azken igandean.

Bultzaka handik, bultzaka hemendik... Errausketaren aurkako mugimenduko kideek, indarrak batuta, elkarlanean oholtza gainetik behera bota zuten urte batean Santixabeletarako maskota gisa baliatu zen erraustegia. Abenduaren 29an Gipuzkoa Zero Zaborrek antolatua zuen jaialdian izan zen. Erraustegia oholtzatik botata, etorkizuneko alternatiba, zero zabor bidea irudikatu zuten gero, hondakinen kudeaketan zabaldu den aro berria, ontzi marroi, organiko, lore eta haize errota koloretsuekin.

Antzezpen berezi honekin ospatu nahi izan zuten, hamarkada luze batez hainbat herritar, eragile eta erakundeek aldarrikatu izan zutena, ez zutela errauste plantarik nahi inon, bete zela azkenean. Lortu zela. Errausketaren aroa itxi dela ospatzeko antolatu zuten zero zabor taldeek urteko azken igandean, "Nik ere erraustegia gelditu dut" jaialdia. Borroka luze honetan bidelagun izan zituztenekin bildu, lortutakoagatik elkar zoriondu eta garaipena ospatzeko. "Guztion garaipena da eta guztioi dagokigu ospatzea. Ospa dezagun bada, eta, ez ahaztu: garaipen berriak dauzkagu zain!", adierazi zuten antolatzaileek, jaialdiko ekitaldi nagusian. Errausketaren aroa atzean utzi ostean, "guztion artean Gipuzkoa Zero Zabor lurralde izatea lortuko dugu!" zioten.

> ***"Guztion garaipena da eta guztioi dagokigu ospatzea. Ospa dezagun bada, eta, ez ahaztu: garaipen berriak dauzkagu zain!"***

**Kantuan, bertsotan... errausketari ezetz**

Garaipen berrien bila abiatu aurretik ordea, antolatzaileak eta "Nik ere erraustegia gelditu dut!" jaialdira gerturaturikoak ospakizunetarako astia hartu zuten. Bertan ziren Usurbilgo Udaleko, Foru Aldundiko edota Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko ordezkariak, jaialdiari atxikimendua adierazi zioten aurpegi ezagunak, errausketaren aurkako mugimenduko bilgune desberdinetako ordezkariak, udalerrietako zero zabor taldeetako kideak, zubietarrak, usurbildarrak...

Eta baita gonbidatu bereziak ere. Porrotx esaterako, goiza alaitzera etorri zen, Morau abeslariarekin batera. Paris etxeko balkoi batetik, Txiriboga ondoko eraikineko beste balkoi batera, bertsotan aritu ziren Asier Azpiroz eta Beñat Gaztelumendi. Azpirozek berak "Agure zahar batek zion" abestiko letra egokitu zuen, erraustegiaren gaiari buruzko hitzekin.

**"Nik ere erraustegia gelditu dut" esaldia osatu zuten**

Kantu talde desberdinek abestu zuten, usurbildarrek tartean. Erraustegiari bultza handik eta bultza hemendik, laster eroriko dela zioen kanta abesten jarri zituzten, pilotalekuan ekitaldia jarraitzen zeuden guztiak. Gero, jaialdiko leloa osatu zuten, "Nik ere erraustegia gelditu dut" esaldia.

Jan edanik ez zen falta izan eguerdian. Eta erosketak egiten edo ikusmiran aritu ziren herritarrak, Usurbil Zero Zabor eta Eginklik! taldeek jarria zuten postu banatan.

## Pagoa Artzabalen

Jaialdia hasi, hondakinen kudeaketan bide berri bat irekitzen aitzindari izateagatik, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak Usurbilgo herriari oparitu zion pago bat landatuz abiatu zuen Udalak. Pagoa, Artzabalgo parkean dago. Herritar talde batek lehenago, erraustegia eraiki behar zuten lekura antolatua zegoen mendi martxarekin. Amaitu berriz, errausketaren aurka egin diren mobilizazio eta ekimenen artean, arrakasta lortu duten flashmob eta mundumob dantzekin borobildu zuten jaialdia.



## Elkarte arteko mus txapelketa

Abenduaren 14an Aitzagan ospatu zen elkarte arteko mus txapelketako sailkapena segidan. Eguberri aurreko azken astekarian oker adierazi genuen nortzuk irabazi zuten 2013ko edizioa. Txapeldunak, Zubietako Yoko Garbi Elkarteko Larrun Olaizola eta Urtzi Alberdi bikotea izan da. Barka eragozpenak.

Hona hemen beraz, elkarte arteko mus txapelketako sailkapena:

1-Yoko Garbi elkarteko Larrun Olaizola eta Urtzi Alberdi.

2-Andatzpe elkarteko Guillermo Tapia eta Manuel Unanue.

3-Peña Pagola elkarteko Pedro Mari Matxain eta Joxe Makatza.

4-Yoko Garbi elkarteko Xabier Arroyo eta Ion Arroyo.










# Korrika, Usurbil biziaren alde

Tipi-Tapa antolatzen duten bakoitzean tabernak betetzen dituzte eta urtero, abenduaren 31rako herriko merkataritza eta ostalaritzaren alde lasterketa egiteko gonbita luzatzen dutenean ere hor dira usurbildarrak. Bidera ateratzeko prest. Herritar mordoa ikusi genuen korrika, urte amaieran, IV. Hurbilago San Silvestre ekimeneko lau kilometroko ibilbidea osatzen. Helduak, gazteak eta aipatzekoa aurten, gaztetxoen parte hartzea. A ze sasoia duten. Batek baino gehiagok esprintean egin zituen helmuga zapaltzeko falta zitzaizkion azken metroak.

Gainerakoan aipaturikoa, lagun koadrilek eta familiek parte hartu zuten, urtea agurtzeko kirol ekimen honetan. Haietako batzuk mozorrotuta, baina guztiek irri bat ahoan zutela. Bidean berriz, herritarrak zebiltzan hara eta hona, batzuk argazkiak ateratzeko leku onenen bila, baina denak paretik pasatzen ari ziren senide, lagun, edota ezagunak gogotik animatzen aritu ziren. Herri merkataritza eta ostalaritza suspertzeko mezua lau haizeetara zabaldu zuten usurbildarrek, Hurbilago San Silvestre lasterketaren bidez. Kaxko osora.



Lasterkariak San Silvestren, korrika noiz hasiko zain.

**SAN SILVESTRE**

***"Batzuk korrika, besteak animoak ematen, mundu bat batu zen San Silbestre lasterketaren inguruan"***

### GABONETAKO ZOZKETA

Usurbilgo herri ostalaritza eta merkataritzaren alde burutu zen herri lasterketan parte hartu zutenek, establezimenduek emandako hainbat opari irabazteko aukera izan zuten: otorduak, erosketa baleak... Lasterka egiteak izan zuen bere errekonpentsa. Baita lau kilometroko ibilbidea osatu ez arren, erosketak Hurbilago Elkarteko kide diren saltokietan egiten dituztenek ere. Eguberrietan zehar Sutegin ikusgai izan diren telebista, bizikleta eta tableta zozketatu zituzten Hurbilago Elkarteak, San Silvestre eguneko herri lasterketa amaitu ostean. Hauek dira zenbaki sarituak:

- Airis Onepad 735 Tableta: 93.300.
- Grundig Led 40VLE630BH Telebista: 66.202.
- Coluer Rave 270 markako bizikleta: 69.187.

## Arantxa Zuriarrain, abenduko saritua Tipi-Tapan

Otarrainxkarekin eginiko mokadu bereziak dastatzeko aukera eskaini zuten joan den igandean, Tipi-Tapa egitasmoan parte hartzen ari diren tabernek. Haietako batean, Txapeldunen egin zen hileroko 150 euroko erosketa balearen zozketa. Egunotan jakingo dugu nork eraman duen Hurbilago Elkarteko saltokietan xahutu ahal izango duen diru kopurua. Abenduko edizioko irabazlea, ondoko irudian duzue. 2976 zenbakidun txartelaren jabea, Arantxa Zuriarrain izan zen abenduko Tipi-Tapako saritua.



Arantxa Zuriarrain, erdian, saria jaso zueneko unean.

## 112.000 euro, Nafarroa hegoaldeko euskalgintzarako

Diru kopuru horretan usurbildarrek ere bere ekarpena egin dute. Errigorak, AEK, Ikastolen Elkartea, Sortzen eta Zazpiak Bat elkarteen babesarekin udazkenean antolatu zuen elkartasun kanpainaren baitan, Nafarroa hegoaldean ekoitzitako produktuez hornituriko 30 saski inguru saldu zituen NOAUA!k Usurbilen. 8.000 saskitik gora Euskal Herri osoan. Harrera ezin hobea izan du Errigoraren egitasmoak. Pentsa, epez kanpo ere jendeak saskiak eskatzen jarraitu du.

"Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka", lemapean buruturiko ekimenak izan duen arrakasta dela eta, antolatzaileak pozik dira. "Esloganak berak dioenari jarraituz, sekulako puzkada egin dugu denon artean", adierazi dute. Elkartasun kanpaina honetako eragileek, herritarrak zoriondu nahi dituzte. "Egin zitezkeen aurreikuspen onenak ere gainditu ditugu. Horregatik, proiektu honetan parte hartu duten herritar guztioi zorionak. Itzela izan da!", adierazi dute.

### BERTAKO PRODUKTUEKIN

Aurreikuspenak gainditu dituztela ikusita, esperientzia errepikatzekotan dira.

Aurrez hitza emana zuten moduan, Nafarroa hegoaldeko euskalgintzako proiektu desberdinetara bideratuko dute: Lodosako ikastolara, "Euskaraz bizi eta ikasi" herri ekimenera eta Erriberako AEK-ra. Bide batez, hango nekazal produktuak sustatzen jarraitu nahi dute.

# 7.400 euro, Eperra ikastolarentzat

Nafartarrak Elkarteak Zuberoako Sohüta herriko Eperra ikastolaren alde burutu duen elkartasun kanpainak, harrera ezin hobea izan du. Oraingoan, 7.400 euro batu dituzte Usurbilen, azken asteotan saldutako Zuberoko produktuez hornituriko otarren bidez. Pozik, oso pozik agertu ziren zuberotarrak abenduaren 22ko Santo Tomas Azoka egunean. Usurbilen ziren, Nafartarrak taldekoek Kantu Taldekoekin batera antolaturiko kantu-jira berezian parte hartzen. Esker ona adierazi zioten Usurbilgo herriari, azoka amaieran frontoian burutu zuten ekitaldi berezi batekin. Beste hainbeste egin du elkartasun kanpaina honen koordinatzaile Beñat Etxebestek, lerrootan.




Santo Tomas azokan jaso zuten dirua.

**NOAUA! Iaz baino erantzun hobea izan du elkartasun kanpainak Usurbilen. Zer balorazio egin dezakezue? Zer esan kanpainan parte hartu duten usurbildarrei?**

**Beñat Etxebeste:** Xiberoko Eperra ikastolako otarren kanpainak arrakasta polita izan du aurten ere. Duela 10 urte zabaldu sail horrek, pixkanaka, bere garrantzia hartu du. Joan den urtekoa konparatuz, %15 otarre gehiago saldu dugu, oro har Gipuzkoa eta Bizkaian. Puntu berezia, Usurbil: hor %36 otarre gehiago!! Aupa Usurbil! Nola argitu ditzakegun datu horiek? Kalitatezko jakiak saltzen ditugu, hori alde ona. Baina krisi ekonomikoa izanik, bagenituen aurten beldur batzuk. Nik uste, arrakastaren argudio handiena dela lotura. Urtez urte gure artean ehuntzen den lotura. Duela 30 urte, Euskal Herriko hegoak ez zuen iparra ezagutzen. Eta iparrak, ez hegoa. Auzo eta arrotz. Gaur eta egunero hobeto, jendeek gehiago elkar ezagutzen dute. Usurbilen baditugu enbaxadore eten gabean lanean ari direnak. Zenbat herritar lagundu dute Xiberora? Zenbat Xiberotarrei batzarri ona egin Usurbilen? Berek balekite, baina izenaz ez dute axolik.

**Zer nolako lana dago horrelako kanpaina bat antolatzen?**

Kanpaina antolatzeko, Xiberoko Eperra ikastolako etxeko talde bat bagaude. Bost lagun deliberoen hartzeko, hogei bat otarren osatzeko, sei harien banatzeko. Berezitasun bat: otarretan diren mozkin guztiak, ikastolako guraso diren edo izan direnak eginak dira. Zinez hunkigarria da, alde batetik, Usurbilek hainbeste eskaera helarazten duenean, eta bere denboran, nekazari batek, bere haurrak ikastolan izanak duela 20 urte, bere kamioia urririk prestatzen duenean otarrak banatzeko.

BEÑAT ETXEBESTE

*“Krisi ekonomikoa izanik, bagenituen aurten beldur batzuk. Nik uste, arrakastaren argudio handiena dela lotura. Urtez urte gure artean ehuntzen joan den lotura”*

**Iaz jasotako laguntza zertara bideratu ahal izan duzue?**

Eperra ikastola, Sohüta herrian kokatzen da, Maule ondoan. Duela 15 bat urte, bastiza zahar batetarik ikastola egin zen. Usurbildar zenbaitek orduan, txastatu ahal izan dute Euskal Herriko harriaren gogorra, beharrez, zintzurreko hautsa patxaran goxoz eztituz. Bi kantore eta horra ... mundu berri ! Duela 3 urte ikastola handitu dugu eta, jarraian, lehen partea zaharberritu. Hiru urtez 10 bat guraso izan da lanean larunbatero. 2013ko ekainean lanak osoki amaitu dira. Orain dugu ikastola oso berritu bat. Otarrekin bildu diruak laguntzen gaitu gastu horien ordaintzen eta emeki emeki gure aitzinkontuaren orekatzen.

**Zer eskatzen dio Eperra ikastolak eta oro har Ipar Euskal Herriko ikastolek urte berriari?**

Oraino haur gehiago Xiberoko ikastoletara. Bai Sohütara (Eperra Ikastola), bai Alozera (Basabürüko ikastola)! Iparraldeko ikastola hainitzek badute egoitzen handitu beharra. Frantziak garapen hori trabatu nahi du, duela 2 mente bozkatu lege bat baliatu.

**Besterik esan nahi zenuke?**

Gaur, Xiberoko haurren %15a Xiberoko bi ikastoletan ibiltzen dira. Atzo, Euskararen militanten haurrik baizik ezpazen, goizetan kanpoko atearen pasatzeko, egun, ikusten dugu jende berria. Euskal mundu tradizionaletik urrun diren batzuk, nahiz Xiberoan sortuak edo beste batzuk, lanarengatik Maulera bizitzera joanak direnak. Horra lan sail berri bat: nola integratu jendetze berri hori ? Nola txestarazi, gozarazi, euskal bizi modua? Sail berri hortan ere, dudarik gabe, badaukagu usurbildarren lagungoaren beharra. Nola hobeki komunikatu? Nola euskaldunen arteko sarea azkartu? Urratsez urrats, eskuz esku, bidea dezagun segitu! Eskerrik hanix, hainen beitzaituztegu senditzen hurbil!

## Santo Tomas Azoka entretenitua

Ixabel Agirresarobe ipuinak kontatzen zizkien haur eta gurasoei; Asteasuko Olarreaga Goiko baserritik etorritako Joxe Aizpurua Bizkarreko idi parea perratzeko lanetan aritu zen; frontoian, gaztainak, sagardoa, taloak, edota pintxo goxo askoak zerbitzatzen, babarrun eta sagardo txapelketetako epaimahaia gogor lanean... Askorako eman zuen abendurako 22ko Santo Tomas Azokak...

Beste behin, ikusmin handia sortu zuten babarrun eta sagardo txapelketek. Ekimenok inoizko parte hartze handiena izan dute aurtengoan. 55 babarrun ekoizle eta 20 sagardo ekoizle ditugu lehiatu ziren. Baina sarituak sei ekoizle baino ezin zitezkeen izan.

**Babarrun txapelketa**

1. saria: Manuel Aizpurua, Ibai-Ertz, Aginaga.
2. saria: Jose Kruz Matxain, Olarri baserria.
3. saria: Juan Karlos Balerdi, Izarpe Etxea, Kalezar.

**Sagardo txapelketa**

1.saria: Joseba Zuloaga, Usurbil.
2.saria: Juan Zuriarrain, Zelaieta Etxea, Zubieta.
3. saria: Xabier Soroa, Kalezar.

# Jontxu, gure artean betiko

Hunkigarria izan da egunotan Usurbilen bizitakoa. Gutxitan ikusiko da, herritar batek hainbesteko jendetza biltzea bere azken agurrean. Hainbesteko zirrara eragitea, kalean, sare sozialetan, herrian... Usurbilen eta usurbildarren artean a zer nolako hutsunea utzi duen. Eta bere heriotzak herritarrak nola hunkitu dituen izugarria izan da. Maitasunez beteriko mezuekin, gainezka egin dute Twitter edo Facebook atariek.



Jon Uribe 2012ko Santixabeletan, jaien hasiera ekitaldian.

Zenbaezinak dira idatzi dizkioten hitzak. Asteburuaz geroztik merezitako txoko propioa du herrian, Sutegin bere omenez mural bat jarri baitiote. Abesti bat ere sortu diote. Hainbat olerki idatzi dizkiote senide edota lankideek. Hori guztia, gure artetik joan den arren, denon oroitzapen eta bihotzetan bizirik jarraituko duen Jontxuk, Jon Uribek eragin du. Bere bizipozak, goxotasunak eta bizitza bizitzeko zuen modu bakar eta apartekoak.

Hunkitzeko modukoa zen bere heriotzaren berri izan zenetik sare sozialen bidez idazten eta zabaltzen joan ziren agur mezuak; "Ez zaitugu inoiz ahaztuko", "Gure artetik joan zara baina gertu sentituko zaitugu beti! Handia zinen, zara eta izango zara! Agur eta betira arte Jon!"... Lagunak nonahi zituen Jonek. Herrian, baita Usurbildik kanpo ere. Laket musika taldekoen hitzak segidan: "Zure bizipoza eta laguntasuna utzi diguzu betirako, eskerrik asko eta gero arte Jon".

Gogoan dute bai Jon nolakoa zen, baita bizitza bizitzeko izan zuen modua ere. Ernai Usurbil bilgunetik honakoa idatzi zioten: "Jontxu, beti errebelde, gaztetasuna jarrera kontua denaren isla. Hire bizitza, hire borroka... gure eredu!!!". Bakarra eta berezia zela gogoratzen zuen beste lagun batek. “Usurbilgo legenda bat hil da! Oso tipo jatorra zen!".

## Senide eta lagunei animoak

Usurbilek eta usurbildarrek oso maitea zuten gaztea joan zaigu. "Pertsona gutxik dutelako herri oso baten maitasuna eta miresmena lortzeko abilezia! Gero arte Jon!, "Jontxu ez zaitugu ahaztuko", "Beti egongo zara gure bihotzetan Jontxu!", "Jon beti gure bihotzean!", "Izar handi bat piztu zaigu zeruan. Beti egongo zara gure bihotzetan Jon!"... Uriberen omeneko mezuak zenbaezinak dira egunotan. Jonentzako hitzak, baita senideentzako animuak ere. "Beti egongo zara usurbildarron bihotzetan Jon! Animo asko familia osoari!".




Sare sozialetan, kalean eta Jontxuren aldeko hiletan nabari zen, herritarrek zer nolako estimua zioten kalezartarrari. Heriotzaren berri izan zenetik, sare sozialek Uriberen aldeko elkartasun eta maitasun mezu uholdearekin gainezka egin zuten moduan, beste hainbeste gertatu zen urtarrilaren 3an, Jonen aldeko hiletan. Herrian hain maitatua zen gaztea agurtzeko, Salbatore Parrokia txiki geratu zen. Eta jendetza bildu zen baita eliza atarian edota Dema plaza inguruetan. Jonek herri oso bat mugitu zuen bere azken agurrera. Sare sozialetan gertatu moduan, lore sorta, olerki eta abesti eta guzti agurtu zuten Uribe handia.

### Bere txokoa, Usurbil erdigunean

Usurbildarrek Jon agurtu dute egunotan, baina gure artean bizirik jarraituko du. Bere txoko propioa baitu asteburuaz geroztik herri erdigunean. "Irribarrea hire borroka, besarkada hire iraultza, hi gure eredu. Eskerrik asko Jontxu". Hitzok, eta pozik asko, lagunez inguratua ageri zaigun irudi batean ageri da Jon, bere omenez, urtarrilaren 4an Sutegi atarian jarri zuten mural batean. Zatika, mimo handiz osatu zuten senide eta lagunek, Irazu kalean ikusgai dagoen irudia. Hunkigarria izan zen murala osatzen amaitu zuten unea. Azken horma irudi zatia etxera itzuli berria zen Jonen anaia Ramonek jarri baitzuen, bertaraturikoen txalo artean.

**Murala, bere oroimenez**

Ekimen berezi honekin abiatu zuen Ernai gazte erakundeak, preso eta iheslarien eskubideen alde egun horretarako antolatua zuen "Denak Ala Inor Ez Eguna". Goizerako iragarriak zituzten koadrilen arteko jokoak bertan behera utzi zituzten, eta aipatu moduan, Jon Uribe omendu nahi izan zuten ekimen berezi honen bidez.



# “Beti izango dut irrifar bat zu oroitzean”

Kalean edota sare sozialen bidez egunotan bizi izan dugunak, guztiz hunkitzen du edonor. Uriberen omeneko mezuek ez zuten etenik. Eta ikusgarria zen gainera, zer nolako oihartzuna zuten. Esandakoa, Jontxuk lortu zezakeen herri oso batek maitatua eta miretsia izatea.

Mezu guztien aipamena egitea hemen ezinezkoa da, ziur bat baino gehiagorenak jaso gabe utziko genituela. Jonek nonahi zituen eta lagun on askoak. Eta haietako bakoitzak ahalik eta modurik sentikorrenean omendu du Uribe. Batzuk, berarekin partekatutako hainbat une pozgarriren irudiak zintzilikatu dituzte sare sozialetan. Beste hainbatek olerkiak idatzi dizkio. Denek agurtu nahi izan dute Kalezarko gaztea; lankideek, ikastolak, auzokoek, lagunek, senideek... Jon, Mendeku Itxua musika taldearen zaletu amorratua zen. Talde kideetako batek Ixak Arrutik ere abesti bat sortu dio, Uriberen azken agurrean entzun ahal izan dena. Aipatu kanta honen letra eta bildu ahal izan ditugun beste zenbait olerki segidan:




**Ernaiko gazteek ipini zuten murala. Ondoren, lagun eta senideekin batera atera zuten erretratu hau.**

## Ixak Arrutiren abestiaren letra: “Jontxuri biyotzez”

Inork nahi ez arren
agurtu gabe, joan zara lagun
baina zure irria
ta maitasuna ez daude urrun.

Berriz ikusiko gara bai
hemen, han edo beste nonahi.
Zu gabeko bizitzarik
nik ez dut nahi!!!
Jon betirako,
zaitut gordeko nire bihotzean
Beti izango dut,
irrifar bat zu oroitzean.

Ze ondo pasatu degun
gau eta egun kontzertu bakoitzean.
Ze goxo eta bereziak
izan diren guztiak,
zu izanik aurrean

Berriz ikusiko gara bai
hemen, han edo beste nonahi.
Zu gabeko bizitzarik
nik ez dut nahi!!!
Jon betirako,
zaitut gordeko nire bihotzean
Beti izango dut,
irrifar bat zu oroitzean.

Jon betirako,
zaitut gordeko nire bihotzean
Beti izango dut,
irrifar bat zu oroitzean.

# Maitasun mezu zaparrada jaso du azken egunotan

### Ilobak

Nola lainoak menditik,
joan zara gure artetik
soinurik gabe,
baimenik gabe...
Maite zaituen lurretik.
Mila esker ta ez adiorik
Jontxu iloben partetik.

### Udarregi Ikastola

Bazoaz gugandik,
Urte Berriaren
lehen txinpartaz!
Gure artean izango
zara betiko!

### Udaletxeko langileak

Udaletxeko leihoak daude
triste, ilun eta malkoz.
Gure artetik Jon joan zara
ustekabean, betikoz.
Zu izan zara urte hauetan
dena ona, dena bihotz.
Gure gogoan egongo zara
beti alai ta beti poz.

### Kalezarko Jai Batzordea

Handia zinen gure artean,
lanean eta laguntasunean.
Handia zinen
gure bihotzean
eta handia zara
gure oroimenean.
Auzotarrok sekula
ez zaitugu ahaztuko.

### Gureak

Beti gogoan izango zaitugu.

### 83-85 urte artean jaiotako lagun koadrila

Inork nahi edo espero gabe,
gaur bapatean joan haiz
Euskal Herri osoan,
ezagun hitzen, bai
Hi hitzen guztion lagun,
gu guztion anai
Bihotz haundi horrekin
biguntze huen nornahi
Beti hain zintzo eta,
bizitzan hain alai
Hire islada utzi duk
guztiongan ta non nahi
Askeetan askeena,
beti pozez egon haiz
Izan hadi ba aske ta
zoriontsu,
lehen bezela orain.

# Kantu betean ospatu dira

Agerian geratu da beste behin ere, herritarren kantu zaletasuna. Ikasleek ikastetxeetan, gabonetako oporretan murgildu aurreko azken klase egunean. Aginagan edota Usurbilen. Udarregi Ikastolako ziklo guztietako ikasleak kalera irten ziren irakasleekin abenduaren 20an, hitzordurako egoki jantzita, gabon kantak abestera. Eguberriei ongi etorria ematen lehenak izan ziren. Gabon gaua eta Olentzero heldu aurretik berriz, Aginagan Parrokiakoak, Santuenean auzo elkartekoak, Zubieta Lantzenekoak, Usurbilen Parrokiakoak eta Usurbilen Nahi Ditugu elkartekoak... Denek abesteko tartea hartu dute eguberriotan.



Herri bat aritu da kantuan. Irudian, Parrokia taldekoekin batu ziren herritarrak.



Aginagako Eskola Txikikoak.



Udarregi ikastolako HH mailako ikasleek Olentzero atera zuten patiora.



Udarregi ikastolako DBH mailako ikasleak, Mikel Laboa plazan kantari.



Udarregi ikastolako LHko ikasleek ere kantuz hasi zituzten gabon-oporrak.

# Eguberriak



Haur Eskolakoekin astoa, Maridomingi eta Olentzero atera ziren kantuan.



Santueneko kaleetan barrena ere ibili zen Olentzero.



Preso eta iheslarien omenezko kalejira Mikel Laboa plazatik abiatu zen.



Eguberrietan, jolas parke izan zen hiru egunez Oiardo kiroldegia.

## Erregeak: "Hemen gaude, zoriontasuna banatzeko"

Horiexek dituzue Meltxor, Gaspar eta Baltasar frontoira iritsi eta egin zituzten lehen adierazpenak. Askok garai zailak bizi dituzten honetan, baikortasuna zerion, hiru erregeek harrera egitera hurbildutako herritarrei irakurri zieten mezuak: "Egunok eta urteok nahiko gogorrak izan dira familia askorentzat. Familia askok langabezian, pobrezian, beste era batera bizi izan behar dituzte gabonak. Baina gu hemen gaude, zoriontasuna banatzeko, maitasuna, adiskidetasuna, beste opari batzuen tartean".



Esandako orduan iritsi ziren frontoira hiru errege magoak. Goiz partean, bere laguntzaileak egon ziren erregeentzako gutunak biltzen.

### San Esteban Txikin saritutakoak



Bertako produktuen zozketa egin zuten Urdaiagan, San Esteban Txiki Egunean. Mezara eta Jai Batzordeak prestaturiko hamaiketako ederra dastatzera joandako herritar askoren artean, zozketako sariak irudiko laukoteak irabazi zituen.

# Logotipo lehiaketa antolatu du Zumarte Musika Eskolak



Argibide gehiago udaletxean, Kultura Sailan. Oinarriak oso-osorik QR kodearen bidez eskura ditzakezue.

Zumarte Musika Eskolak antolatzen duen Soinurbil jaialdiak 10 urte beteko ditu aurten. Urteurrenean, logotipo lehiaketa antolatu dute, Udalak eta Zumartek elkarlanean. Sari bakarra emango da eta 400 eurokoa izango da. Lanak urtarrilaren 31 baino lehenago Usurbilgo Udalean aurkeztu behar dira".

2014an Soinurbil Musika Zikloaren 10. edizioa egingo da. Urteurren hori dela eta, Zumarte Musika Eskolak eta Usurbilgo Udalak elkarlanean Soinurbilen logotipoa sortzeko logo lehiaketa antolatu dute. Lehiaketa honen xedea Soinurbilen irudia izango duen sormenezko diseinua hautatzea da.

**Parte hartzaileak**

Lehiaketa publikoa eta irekia izango da. Lana originala eta argitaratu gabea izango da, beste lehiaketetan parte hartu gabea, eta ez da izango beste lan batzuen kopia, ez guztiz, ez zati batean.

**Gaia**

Logoaren gaia "Soinurbil" izanik, hiru ardatz bilduko diru: Usurbil, musika eta hurbiltasuna.

**Lanen ezaugarri teknikoak**

Logoaren diseinua honela aurkeztu beharko da:

a) Formatua:

1.-Paperean: 5 x5zm eta DINA4 ko tamainetan, bai kolorez, bai zuribeltzean aurkeztu beharko da.

2-Euskarri digitalean: CD edo pendrive batean, bai kolorez, bai zuribeltzean aurkeztu beharko da. Illustrator edo antzeko beste programa bat erabili ahal izango da; betiere, azken hau edozein tamainetara egokitu badaiteke kalitatea galdu gabe.

b) Diseinuaren zergatiaren azalpen txiki batekin aurkeztuko da logotipoa, gehienez orri batekoa.

c) Edozein komunikazio euskarritara egokitu ahal izango da logotipoa, hau da, papera, gutun azala, txartela, kartela, helbide elektronikoa, web orria, etab.

**Saria**

Epaimahaiak sari bakarra banatuko du, 400 eurokoa.

**Epea**

Lanak aurkezteko epea 2014ko urtarrilaren 2an hasi eta urtarrilaren 31n amaituko da, biak barne.

**Non aurkeztu lanak**

Udaletxean edo postaz helbide honetara igorriz:

Usurbilgo Udala
Kultura Saila
Jose Martin Sagardia plaza z.g.
20170 Usurbil

## I. Jon Uribe Pala Txapelketa

Jontxuren omeneko kirol ekimena antolatu du neska mutilentzat, Akerra Gaztetxeak. Txokoaldeko frontoian jokatuko dira neurketak, larunbat goizetan, bananako modalitatean. Urtarrila amaiera edo otsaila hasieratik aurrera. Parte hartu nahi duenak, izena eman dezake jada Aitzagan, urtarrilaren 21a baino lehen. Parte hartzeagatik 5 euro ordaindu beharko dira, partidu egunean bertan.

## Neskak garaile, gabonetako eskubaloi txapelketan

Eibar, Zarautz, Basauri, Hondarribia edo Tolosatik etorri ziren abenduaren 29an, Mirotz Ullateren omeneko gabonetako eskubaloi txapelketan parte hartzera. Baina etxekoek duten nagusitasuna erakutsi zuten beste behin.

Infantil mailako taldeen arteko lehia honetan, nesken arteko txapelketa Usurbil Kirol Elkartekoek irabazi zuten.

Finalera iritsi ostean, txapeldun orde amaitu zuten mutilek.

Gainerakoan giro oso ona eta jendetsua izan zen, 2013ko azken igandean goizetik iluntzera ospatu zen jaialdia.



Alkateak eman zien txapeldunen kopa.

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. ✆ 943 362 725

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 24 01 76 eta
649 435 470
errazkinsl@euskalnet.net
Oztaran auzoa 33, URNIETA

Zuen publizitatea hemen
✆ 943 360 321
publizitatea@noaua.com

# 2014rako kirol instalakuntzen txartela berritzeko garaia da

Igerilekua, gimnasioa, frontoia... 2014an ere Usurbilen ditugun kirol instalakuntzak baliatzeko Udalak abonu mota eskaintzaren berri zabaldu du, kaleratu duen eskuorri batean. Erabiltzaileentzako honako prezioak finkatu dituzte urte berri honetarako:



Prezioak, zerbitzuak eta egutegiak zehaztu dituzte kiroldegietan, baita Oiardon ere.

**Urteko bazkidetzak**
- Banakako heldua: 157 euro.
- Banakako gaztea: 99 euro.
- Familiarra: 239 euro.

**Sarrerak**
- 18 urtez gorakoak: 5,90 euro.
- 18 urtez beherakoak: 3,70 euro.

**Erreserbak eta zerbitzuak**
- Squasha: 5,20 euro.
- Frontoia (argia barne): 17,20 euro.
- Sauna: 3,70 euro.
- Giltza hautsi edo galtzea: 5,20 euro.
- Karneta hautsi edo galtzea: 3,50 euro.
- Informazioa: 943 372 498 / kirola@usurbil.net
- Abonuak ordaintzeko kontu zenbakia:

2095 5069 08 1064363541.

**Jai egunak**
Gogoan izan, Usurbilgo Kiroldegiko txartela, Andoain, Lasarte-Oria eta Urnietako kirol instalakuntzetarako ere erabil dezakezuela. Ohar interesgarria, bereziki, Oiardo itxi ohi duten egunetarako. Eta itxialdien berri ere eman dute Buruntzaldeko lau udalerrietako kiroldegiek. Alegia, 2014ko jai egunen egutegia finkatu dutela. Urte berri honetako egunotan itxiko dituzte inguruko kiroldegiak:

- **Usurbil.** Urtarrilak 1, 6; uztailak 2-3; abuztuak 1-24; abenduak 24-25, 31.
- **Andoain.** Urtarrilak 1, 6; ekainak 24; uztailak 6, 13, 20, 27; abuztuak 1-17, 24, 31; abenduak 24, 25, 31.
- **Lasarte Oria.** Kiroldegia: urtarrilak 1, 6; maiatzak 1; ekainak 28 (arratsaldez), 29, 30; uztailak 6, 13, 20, 27; abuztuak 1-14, 17, 24, 31; abenduak 24, 25, 31.

Kirol Gunea: Urtarrilak 1, 6; apirilak 17-21; maiatzak 1; ekainak 28 (arratsaldez), 29, 30; uztailak 6, 13, 20, 25, 27, 31; abuztuak 1-15, 17, 24, 31; azaroak 1; abenduak 8, 24, 25, 31.

- **Urnieta.** Kiroldegia: urtarrilak 1,5,6; apirilak 17-21; maiatzak 1; irailak 15-17, 28-29; urriak 12; azaroak 1; abenduak 7-8, 24-25, 31.

Frontoia: Urtarrilak 1,5,6; apirilak 17-21; maiatzak 1; abuztua itxita; urriak 12; azaroak 1; abenduak 7-8, 24-25, 31.

# Tximeleta taldearen ikuskizuna

Urtarrilaren 25ean, Tximeleta taldeak aurre-lehiaketa antolatu du, Elorsoro kiroldegian, Oiartzunen. Goizeko 11:00etan hasi eta eguerdiko 12:00etan bukatuko da. Aurre-lehiaketa honetan, hainbat ikastetxeetako ikasleek parte hartuko dute: Herrera ikastetxea, Zurriola ikastola, Jesuitinas ikastetxea, Intxaurrondo ikastola, Santo Tomas Lizeoa, Jakintza ikastola, Udarregi ikastola, Cristobal Gamon ikastetxea, Lezo Herri Eskola, Pasai Lezo Lizeoa, Haurtzaro ikastola eta Elizalde Herri Eskola eta hauekin batera Tximeleta elkarteko jubenilak eta seniorrak.

## Irisasi BTT “Hotzak akabatzen” probarako izen ematea zabalik

Mendi bizikleta proba, urtarrileko azken igandean jokatuko da, hilaren 26an. Bi ibilbide egongo dira aukeran; 30 eta 40 kilometro inguruko zirkuitu bana. Proban parte hartzeko izen emateko epea zabalik egongo da urtarrilaren 23ra arte. 12 euro ordaindu beharko dituzte federatuek, 15 federatu gabe daudenek. Zertxobait gehiago proba egunean bertan apuntatzen direnek; 15 euro federatuek, 20 euro federatu gabe daudenek.

**Craft kamiseta opari**
Proban irtengo diren guztientzat Craft kamiseta opari, hainbat zozketetan parte hartzeko aukeraz gain.

Asistentzia edota jan edan edan beroa izango dute bidean, hamaiketako ederra helmugan.

Informazio gehiago Andatzaren web orrian: andatzamendizale.info

## Eskubaloi partidak kiroldegian

**Urtarrilak 11, larunbata**
11:30 Alebin neskak:
Udarregi 5B-Udarregi 5A
11:30 Alebin neskak:
Udarregi 5C-Urnieta 6B
12:30 Alebin neskak:
Udarregi 6A-Urnieta 5B
12:30 Alebin neskak:
Udarregi 6B-Urumea
16:00 Kadete neskak:
Usurbil K.E.-Bera Bera
17:30 Jubenil neskak:
Usurbil K.E.-Bera Bera
19:15 Senior mutilak, 2.nazionala:
Ucin Aluminio Usurbil-C.B. Urduliz

**Urtarrilak 12, igandea**
11:30 Kadete mutilak:
Usurbil K.E.-Pneumax Elgoibar









## ETXEBIZITZA

### Salgai

Pisu bat alokatu edo salgai Munalurran. 3 logela, sukalde-egongela, komuna, 2 terraza. 637 309 209.

Sanesteban kalean pisua salgai. 3 logela, sukalde-egongela, komuna, eta balkoia. Dena berritua. Tel. 699 680 265. 150.000€.

Baxua salgai Errekatxikin (61 m2) + pisu azpiko trastelekua (61 m2). 2008ko obra berria. Logela, ikasgela, egongela-jangela-sukaldea eta komuna. Aire egokitua, berogailua, beira bikoitzeko leihoak... oso funtzionala. Bizitzen jartzeko. 649 895 858

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea.Iñaki (665736896)

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berritzeko. Fatxada eta portala berritu berriak. 138.000 e. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plazakoa. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpinean. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, + 60metroko trasteroarekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

### Alokairuan

Pisu bat alokatzen da Santuenean. 2 logela, egongela, sukaldea eta trastelekuarekin. 550€ negoziagarriak. Tel. 637 962 568.

"Logela bat alokagai. 250 euro+gastuak. Kale Nagusian. 606 642 161

Pisua alokairuan Santuenean. Berritua, 2 logela. Urtarrilatik aurrera. Fidantza gehi 2 hilabete aurreratuak. 630€

Etxebizitza alokatzen da Atxegalden. 3 logela, egongela, 2 komun eta sukaldea. Tel. 626 347 914.

Usurbilgo pisu batean, logela bat libre konpartitzeko. 290€ hilabetero, Wifi, ura, elektrizitatea eta gastu guztiak sartuta. Giro ona, pisu dotorea eta handia. 657 700 408.

Atxegalden pisu bat. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, terraza eta igogailua. 637 309 209.

Gela bat alokatzen da Usurbilen. Pisua egokia eta gela handia. Tel. 691 898 800.

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

3 gelako etxea alokagai erdialdean 700€ gehi gastoak. Gelaka ere alokatuko genuke. 630713583

Kaxkoan pisu bat alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna , ganbara eta igogailuarekin. 943371495-695767821-657711335

Usurbildarra naiz eta etxe bat alokatu nahi nuke inmobiliarik bitarteko izan gabe. Interesatuak deitu mesedez 661568471 telefonora

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

## MOTORRA

### salmenta, garajeak

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

Garaje (marra) bat alokatzen da Kale Nagusian 60€ hilabetero. 657 700 408.

Garaje itxia alokatzen da Txaramunto auzoan. 15 metro karratukoa. Tel. 667 71 50 75

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratukoa. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Opel Zafira salgai, 1.7 81cv. 2010eko urrikoa.25.000 km. Oso egoera onean. 652759267

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

Papelak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsuak lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketak egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Usurbilgo neska euskalduna, tituluduna eta esperientziaduna, haurrei ingeleseko klase partikularrak eman edo etxerako-lanetan laguntzeko prest. 670461180. E-maila: oli_ireth@hotmail.com

Klase partikularrak ematen ditut, L.H-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzear eta lan honetan esperientziaduna.(618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Klase partikularrak ematen ditut edozein irakasgaietan. Esperientziaduna. Ordutegi eta prezioak adosteko erabateko malgutasuna. 634417969(Amaia)

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonei erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrak emateko prest nago.Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldez. Irakaskuntza gradua bukatzear eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goiz zein arratsaldez. Irakaskuntzan diplomatua. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketan eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsu eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikula-



**Zorionak Garazi!** Urtarrilaren 2an lau urte bete dituzu. Muxu potolo bat.



**Aupa Naia!** Abenduaren 29an bost urte egin zenituen. Muxu handi bat.



**Zorionak Eñaut!** Urtarrilaren 8an 6 urte betetzen dituzu. Peru eta etxekoen partez. Ea bizkotxo goxoa egiten diguzun!

## Heriotzak



**Mª Juliana Arruti Lertxundi**
89 urterekin hil zen,
abenduaren 26an Aginagan



**Jon Uribe Navarro**
Urtarrilaren 2an hil zen
32 urterekin, Usurbilen

## Heriotzak



**Jose Juan Esnaola Irizar**
87 urterekin hil zen,
abenduaren 27an

Ohar, zorion-agur... berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 11:00etan erredakzioa@noaua.com

rrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperiantziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2.mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrak emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskalduna, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da egunez, adineko pertsonak umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, ostalaritzarako eta garbiketak egiteko. 673 445 903

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

## Lan eskaintzak

Estetizien bat behar da Usurbilen lan egiteko, tel 943 37 19 71

Emakume euskaldun eta esperientziduna behar da Astigarragan, 6 hilabeteko haur txiki bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Goizez, astelehenetik ostiralera. 635742503

Emakume bat zaindu eta etxeko lanak egingo dituen interna behar dugu. Arduratsua den adineko emakume euskalduna hobestuko da. 943 300518 (Mª Angeles)

## BESTELAKOAK

Katu beltza eta txuria galdu da herrian, "Txalaka" frutadenda inguruan. Pottolo xamarra dago. Norbaitek aurkitu badu, deitu: 605 752 667. Saria emango da.

Baserri edo borda bat nahi genuke alokatu edo alokairuaren bidez erosi. Oiloak, pottokak eta baratza ditugu, beraz hektarea bat gutxienez behar dugu.Miren:656742048; Alaitz:658724075

Hemengo, Kiwiak eta babarrunak salgai. Tel. 943 364 937.

Behor bat salgai. Raid edo ibilaldietarako oso egokia. Izaera ezin hobea. Fisiko harrigarria. 620011889

Baserri bat eskaintzen da konpondu eta negozio bat jartzeko Lasarte inguruan. Tel. 626 728 463.

Josteko bi makina salgai. 943363201.

Indukziozko sua salgai. Bi urte ditu eta baldintza onetan dago. 943 361 109.

Zubietan 10.000 m. baino gehiagoko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

Izotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35 - 38 talla, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretsua. Tel. 649 482 775.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera egin-da. 637974994

Telebista salgai, Sony. Egoera onean, 80 euro. 653 014518

Pedalik gabeko bizikleta bat utzi nuen frontoian, ostiralean edo larunbatean. Decathlon-ekoa, kolore urdina, gorria eta txuria. 605 730 816.

Aginagako artoa salgai . Telefonoa: 687706363

Erosi gasolina sorgailu elektrikoa, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

## TRUKEAN, OPARI

2 ohe eta sofa bat behar dugu premian den herriko familia batentzat. 687 348 223

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

# Telefono interesgarriak

| | | | |
|---|---|---|---|
| Udala | 943 371 951 | Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 | Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 | Taxia (Joxe Kruz) | 677 373 466 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 | Eusko Tren | 943 470 976 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 | LurraldeBus | 943 000 117 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 | Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 | Anbulategia | 943 362 013 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 | Oa botika | 943 376 076 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 | Iturralde botika | 943 363 395 |
| Haur Eskola | 943 374 061 | DYA | 943 464 622 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 | Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 | Emergentziak | 112 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 | Genero-indarkeria, arreta. | 900 840 111 / 016 |
| KZgunea | 943 023 684 | Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 | Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 | Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 | Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Etumeta AEK Euskaltegia | 607 609 379 | Banco Popular Español | 943 370 411 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 | BBVA | 943 377 155 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 | Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 | Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 | Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 | Telefonica | 1004 |
| NOAUA! Kultur Elkartea | 943 360 321 | Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak urtarrilak 9-urtarrilak 19

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Osteguna** | **09** | RODRIGUEZ | K. Nagusia 42 Lasarte |
| **Ostirala** | **10** | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Larunbata** | **11** | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte |
| **Igandea** | **12** | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte |
| **Astelehena** | **13** | ACHA-ORBEA | Hipodromo etor. 6. Lasarte |
| **Asteartea** | **14** | URBISTONDO | San Franzisko 1 Lasarte |
| **Asteazkena** | **15** | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte |
| **Osteguna** | **16** | ORUE | Jaizkibel 2. Lasarte |
| **Ostirala** | **17** | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32 Lasarte |
| **Larunbata** | **18** | ORUE | Jaizkibel 2. Lasarte |
| **Igandea** | **19** | ORUE | Jaizkibel 2. Lasarte |

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegikalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

# Agenda urtarrila

## 11 larunbata

■ **Tantaz Tanta ekimenak Bilbon antolatu duen mobilizazio egunera** joateko autobusa. Irteera orduak Usurbildik: 10:00/15:00. Zerrendak ohiko lekuetan.

## 12 igandea

■ **Helduentzat zinea: Mugaldekoak.** 18:00 Sutegin. Sarrerak: egunean bertan: 5 euro.

## 13 astelehena

■ **Odol ematea.** 18:00-20:30. Tokia: anbulatorioa. Antolatzailea: Usurbilgo Odol Emaileen Elkartea.

# 'Mugaldekoak', II. Mundu Gerran girotutako pelikula Sutegin

Telesaila izan zen lehenik, telefilm ondoren. Eta azken hau izango da igande honetan Sutegin ikus ahal izango duguna. Mireia Gabilondok eta Fernando Bernuesek 2010ean zuzenduriko pelikula honek 40ko hamarkadan girotutako trama dakar. Euskal mugalariek II. Mundu Gerran jokatu zuten papera islatzen du.

Comette sarearen gorabeherak dira Mugaldekoak-en tramen ardatzetako bat. II. Mundu Gerran hegazkin gidari ingelesak jatorrizko herrietara bidaltzeko eratutako nazioarteko sarea izan zen, eta euskal mugalarien laguntza izan zuen. Mugalari horietako bat Florentino Goikoetxea izan zen, eta Iñaki Beraetxek jokatzen du haren rola. Sarearen sortzaile Andree De Jongh belgikarrarena, berriz, Matxalen de Pedrok egiten du. Era berean, herri baten eta familia batzuen istorioak kontatzen dira. Maitasuna, gorrotoa, sekretuak eta gezurrak agertuko dira trametan. Mireia Gabilondo eta Isidoro Fernandez dira aktore protagonistetako batzuk, Sara Cozar, Alberto Berzal eta Klara Badiolarekin batera.



**Mireia Gabilondo eta Isidoro Fernandez aktoreak dira protagonista nagusiak.**

**Urtarrilak 12, igandea**

■ 18:00etan Sutegin.

■ 5 euro. Sarrera egunean bertan, leihatilan.

## Datorren astelehenean, odol ematea

Errege Eguna dela eta, astebete atzeratu du bi hilean behin Odol Emaileen Elkarteak deituriko hitzordua. Odol emateko eguna beraz, datorren astelehenean, urtarrilak 13. Ohiko ordutegi eta tokian: anbulatorioan, 18:00-20:30 artean.

## Inauteri Festan zertaz mozorrotuko zinateke?

Martxoaren 1ean ospatuko da Inauteri Festa. Zertaz mozorrotu nahi zenuke? Ideiaren bat baduzu, bota lasai. Bidali zuen proposamenak elkartea@noaua.com helbidera, edota 943 360 321 telefonora deitu edo egoitzara ekarri.

## Datozenak

### San Sebastianak, bi egun lehenago Udarregi ikastolan

Astelehenez egokituko da aurtengo San Sebastian eguna. San Sebastian bezpera igandez. Horregatik, ohi bezala hilaren 19an ez, bi egun lehenago, urtarrilaren 17ko bazkalostean eskainiko dituzte danborrada saioak, Udarregi Ikastolako ikasleek.

### Urtarrilaren 25ean, Kantu Taldearen saio berria

Usurbilgo Euskal Kantu Taldearen helburuen artean, herrian, euskal kantuenganako giroa sortzea da. "Herritar orok parte har dezake. Har ezazue liburuxka eta zatozte elkarrekin kantatzera". Urtarrilaren 25ean, 19:00etatik aurrera Mikel Laboa plazatik.

**Kantu ikastaroa**

Kantu Taldeak 2014ko kantu ikastaro berria hasiko du laster. Susi Elosegi Udarregi ikastolako irakaslea izango da gidaria. Asteartetan, 18:30etatik 19:30etara Udarregi ikastolan. Izen ematea Kantu gelan. Prezioa: 10 euro.







Zergatik ordaindu hainbeste
urteroko kotxea, motorra,
furgoneta edo kamioiaren
azterketan edo olio aldaketan?
Hiru eratara egin dezakezu:
zuk eginda, zuk gurekin ikasiz egin edo guk eginda
Egin zerorrek
BOXEEN ALOKAIRUA
OFERTA ESKAINTZA!
943 360850
deitu eta eskatu prezioak konpromisorik gabe 943 360 850, boxes@euromikels.com
N-1 km 441. Billabona www.boxeseuromikels.com




OGI BERRI
ARTISAU OKINAK
ETA ORAIN...
IKUSI FUTBOL
PARTIDUAK
GUREKIN!
egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)




Sarreren salmenta
943 00 12 00
www.kutxa.net
bastero
KULTURGUNEA
ESTREINALDIA!
Txalo produkzioak
"Ondoko hilobiko tipoa"
Iker Galartza - Aitziber Garmendia
URTARRILAK 10, ostirala - 21:30
Andoaingo auditorioan
ANDOAINGO UDALA
Gipuzkoako Foru Aldundia
kutxa
Info: 943.303.540
www.andoain.org


URDAiRA
Urtarrilaren 17an, OSTIRALA
IREKITZEN DUGU!!!
Sagardotegia
astelehenak itxita
Aginaga 943 37 26 91


OTSUA-ENEA
SAGARDOTEGIA
943 55 68 94
Osinaga bailara, HERNANI


LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik maiatzak 5era
TXOTX GARAIA
Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867


943 36 12 29
iruin
sagardotegia
Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com


ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81


SAIZAR
Betiko Sagardoa
Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 37 39 95
www.sidrassaizar.com


SAGARDOTEGIA
aginaga
Hotela **
URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIK!
ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA
943 36 67 10
Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com


Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!
%100 bertako sagarra
AIALDE
BERRI
Tel: 943 365 031
Santuenea